

7-10-2013



AITZOL

EKOIZLEA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

AURKIBIDEA

-AURKEZPENA

-HELBURUAK

-METODOLOGIA

-ELKARRIZKETAK

RAMON LABAYEN

NENA PELLETIER

MIKEL AIZPURU

LOURDES OTAEGI

JUAN PARDO

IÑAKI EGAÑA

JOSEBE GOYA

MAITE LANDIN

AITZOL AZPIROZ

JUANTXO AGIRRE

-DOKUMENTALAREN SINOPSISIA

IZENBURUA: AITZOL

EKOIZLEA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

AUTOREAK: JUANTXO AGIRRE, EIDER CONDE ETA IÑIGO EGIA

ZUZENDARITZA: JUANTXO AGIRRE

ZUZENDARIORDEA ETA PRODUKZIOA: EIDER CONDE

GIDOIA ETA ERREDAKZIOA: IÑIGO EGIA ETA EIDER CONDE

EDIZIOA ETA POSTPRODUKZIOA: OH BROTHER STUDIO

1.- Aurkezpena.

75 urte pasa eta gero Jose Ariztimuño “Aitzol” XX. mende hasierako gure herriko kultur pizkundearen erreferente handi bat da, gure hizkuntzaren berreskurapenaren antzindaria, baita ere literaturgintzan eta euskal kulturaren ikerkuntzan.

Gizarte demokratiko eta progresista bat kulturaren eta giza eskubideetan oinarritzen da, Aitzolen bizitza eta euskal pizkundearen bukaera oso latza izan zen, Frankismoaren erailketak eta atzerapausoak nagusitu zirenean. Gertakizun horietatik gaurko euskalgintzaren geroaren baikortasuna aldarrikatu nahi dugu.

Badira hamar urte Aranzadiko ikertalde ezberdinek Gerra Zibila eta giza eskubideen urraketa aztertzeari ekin ziotela. Jose Ariztimuñoaren inguruan saiakera handiak egin dira, bai dokumentazioaren bilketan bai bere gorpuaren bila. Bide honetan Hernaniko kanposantuan indusketa arkeologiko bat burutu genuen eta Madrilgo “Valle de los Caidos”-eraino iritsi gara. Jasotako harremanei esker egitasmoa hau aurkezten da.

Proiketu hau burutzeko erakunde ezberdinekin harremanetan eta kontaktuan jarri gara, gau egun Tolosako Udalarari esker “Aitzol Euskal Pizkundera” izeneko egitasmoan elkartua daudenak hain zuen ere.

2.- Helburuak.

- Jose Ariztimuño utzitako ereduaren bitartez kulturgintza eta giza eskubideen arteko lotura azpimarratzea eta gaurko euskal gizartearen geroa eraikitzeke oinarritzko balore hauek zabaltzea.
- Oroimen historikoa berreskuratzea. Hainbat lekukotasuna jaso adineko pertsona horiek hil baino lehenago. Adibidez Jean Pelletier kazetariaren alabarena.
- Aitzol eta euskal pizkundearen duintasuna zabaltzea.

- Euskal Herriko pasarte hau gizarteratzea.

3.-Metodologia.

Helburuak lortu ahal izateko honako **dokumentala** grabatu eta editatu da. Hauek dira erabili diren testigantzen **elkarrizketak**.

- Ramon Labayen, Tolosarra.

Ramon Labayen ume bat zen Gerra Zibila hasi zenean, beraz ez zuen Aitzol urte askotan zehar ezagutu. Baina bere familia, eta bereziki Ramonen aitak, oso laguna zuen Aitzol. Elkarrizketa honetan Ramonek, Aitzolen azken egunak kontatzen dizkigu. Aitzol Ramonen aitarekin egon zen Iparraldean, *Galerna* hartu baino 2 egun lehenago.

Ramonek Aitzolen pertsonaiak Euskal Herriko historian zehar izan duen garrantziari buruz ere hitz egiten digu. Orduko euskal gizartean egindako ekarpena eta oraingoan bere lanari esker lortu diren helburuak azaltzen dizkigu.

- Nena Pelletier, Jean Pelletieren alaba.

Marie Pelletieren aitaren testigantza da Galernaren harrapaketari buruz dagoen testigantza bakarra. 1936. urtean Jean Pelletier frantsesa Galernan zihon Aitzol eta beste bidaiari batzuekin. Ondarreta kartzelara eraman zuten, eta han egon zen 7 hilabete. Ez zuten fusilatu, eta kartzelatik atera zenean liburu bat idatzi zuen *“6 meses en las prisiones de Franco”*. Liburu honetan Aitzol kartzelan jasandako tratu txarrak eta fusilamendua agertzen da, Jean Pelletierren hitzetan. Elkarrizketan bere alabak orduko gertaerei buruz gogoratzen duen guztia azaltzen du.

- Mikel Aizpuru. Historialaria.

Aitzolen azkeneko eguna Hernanin izan zen. Ondarretako kartzelatik atera eta Hernaniko kanposantuan fusilatua baitzuten. Mikel Aizpuru historialariak *Udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak* liburua koordinatu du, eta liburuan Hernanin egin ziren fusilaketei buruzko ikerlana argitaratu da. Mikel Aizpuruk azaltzen du Hernanin egin ziren fusilaketen metodologia eta atxilotuek jasan zituzten errepresaliak.

- Lourdes Otaegi. Euskal filoloqa.

Lourdesek euskal pizkundearen mugimenduari buruz hitz egiten du elkarrizketan. Zeintzuk izan ziren euskal pizkundeko protagonistak. Zein izan

zen Aitzolen papera mugimendu honetan. Nolakoa zen Aitzol eta bere lana, euskal kulturaren bultzatzailea, bere alderdi polemista eta bertsolaritzan egin zuen aportazio garrantzitsua.

- *Juan Pardo, euskal Marinan aditua.*

Galernaren harrapaketaren xehetasun teknikoak eta gertatutako historia osoa kontatzen digu Juanek. Euskal marinan aditu bezala, barkuaren zehaztasun eta deskribapen teknikoa azaltzen digu.

- *Iñaki Egaña. Historialaria eta memoria historikoan egiten du lan.*

Ondarretako kartzelan egon zen Aitzol, nahiz eta oso denbora gutxian. Iñaki Egañak Ondarretako kartzela deskribatzen digu, zenbat jende sartu zuten, nolakoa zen, zergatik atxilotzen zituzten. Aitzolen azkeneko egunen narrazioa egiten digu.

- *Josebe Goya. Hernaniko enterradorearen alaba*

2003.urtean egin zen elkarrizketa daukagu. Josebek azaltzen du nolakoak ziren Hernaniko kanposantuan burutu ziren fusilaketak. Josebe zuzenean ikusi zituen fusilapen asko eta gogoan dauzka guztiak.

- *Maite Landin. Bere anaia Galernan zihoan eta fusilatuta izan ze Hernanin.*

Bere testigantza zuzena da, anaiak fusilatua izan baino lehen kontatutako gauzei buruz hitz egiten du, eta baita ere Galernan Aitzolek jasandako tratu txarrak.

- *Aitzol Azpiroz. Jose Ariztimuño "Aitzol" en familiarra.*

Aitzol bere aitonaren osaba zen. Familian betidanik hitz egin da bere lanari buruz eta oso pertsona garrantzitsua izan da beti. Familiarrek Aitzolen gorpua non egon daiteken jakin nahi dute.

Elkarrizketan Aitzol Azpirozek Aitzolen pertsonaiaren gaur egungo ikuspegia ematen digu.

- *Juantxo Agirre. Tolosarra.*

Aitzol hil zenean bere anai batek Hernaniko alkateari eskatu zizkion Aitzolen gorpuzkiak, baina bere eskaera ez zen inoiz gauzatu. Juantxo Agirre, Aranzadiko

idazkari nagusia da eta Aranzadi Zientzia Elkartea lanean ibili zen Hernaniko kanposantuan Aitzolen gorpuaren bila.

4. Dokumentalaren sinopsia

Jean Pelletier frantsesak Galerna itsasontzia hartu zuen 1936ko urriaren 15ean, Baionatik Bilbora bidean. Gerra Zibila hasita zegoen orduan eta frankistek gogor altxatu ziren garai horretan. Galerna itsasontzian Jean Pelletierrek Jose Ariztimuño Aitzol ezagutu zuen eta berarekin egon zen Ondarretako kartzelan. Pelletierrek Aitzolekin bizitako esperientziak eta Ondarretako kartzelan bizitako guztia liburu batean utzi zuen testigantza bezala *6 meses en las cárceles de Franco*. Liburu hori oinarri hartuta, Aitzol ezagutuko dugu dokumentalean zehar. Aitzolen bizitza eta euskal kulturari, bereziki euskal pizkundean egindako lana eta gerra zibilean bizitako esperientziei buruz hitz egingo da.

